

Muina behar

TXILLARDEGI

GERTAKARIEN gurpila ez da gelditu.

Eta oraindik Donostiako eta Iruñeko manifestazio harrigarrien oihartzuna suntsitua ez delarik, bi mila intelektual eta artisten agiria zabaltzen hasi da Europan barrena; eta, bateratsu, Herrerarako Ibilaldi gaitzaren dei-zantzua entzun daiteke bazter berberetan... Aspaldi danik Euskal Herrian gertatu oñi den bezala, berehala nagusitzen zaio azken berria azken-urrenari. Non gertatzen da horrenbestereinokorik?

Tolosako lau zinegotzien auzia bukatu berria zelarik, Idigoras eta Pinedo bide daude orain gartzelako atarian, txanda eskean.

Eta Mikel Zabaltza martiriaren heriotza latzaren zertzeladak oraindik ikertzen ari diren unean, «Atarés jeneralaren kasua» gertatu da Iruñean; eta, biharamonean bertan, «Caplanne kasua» zabaldu Miarritzen, itxura denez gerra zikinaren kapitulu gisa.

Gertakari larrien ilara ez da amaitzen. Azkartu ere egin dela dirudi.

ZABALTZAREKIKO lotsagarrikeriak direla-ta, funtsezko ondorioak ekarriko lituzkete aste trinko horiek mundu zibilizatuan. Barrionuevoren demisioa, adibidez, eta Gipuzkoako eta Nafarroako gobernadoreenak. Hasteko. Ez baita, hain zuzen, hemengo inguruan somatzen duguna...

Eta horretaraz gero, «Ley Anti-Terrorista»ren deuseztapena ere etor liteke. Hori, segitzeko.

Baina PSOE-ren morroin leialak bihurtu direnek, berehala azaldu digute soluzioa: «Si ETA desapareciera, sería más fácil suprimir la Ley

Anti-Terrorista».

Ez dugu, ordea, damutuen iritzi hau konprenitzen. Madrillen behin eta berriz esan baitigute arazoa «terrorismoa» dela, Kremlinek berak gidatzen duen «terrorismo internazionala»; eta inola ere ez «euskal abertzaletasunak» sortzen omen duen borroka... Hortaz, «euskal arazoa» komillen artean idatzi behar bada, zer axola ETA-ren desagertzea?

Abertzale jendeak, ordea, ongi daki «Ley Anti-Terrorista» delakoa zertarako dagoen: *euskal mogimendu abertzalea* zafratzeko. PSOE-k eta damutuek ere gauza bera uste dute. Baina ez dute aitortu nahi. Hauek ere ongi dakite, Euskal Herriari autodeterminatzeko, elkarturik bizitzeko, eta bere buruz gobernatzeko eskubidea aitortuko balitzaio, sobra legokeela «Ley Anti-Terrorista». Zergatik ez hautatuko gure herriaren *defentsa* segurtatuko lukeen bidea, gure herriaren *desagertzea* ekarriko lukeen bidea hautatu beharrean?

MUINERA behar da; eta muinean euskal nazioaren arazoa dago. Alde honetatik, «Ley Anti-Terrorista» bera ere, latza izanik ere, axalekoa da, epifenomenoa da.

Gu baino gazteago direnek ez dute Arjeliako gerla ezagutu; eta gehienek ez dakite, horretara, Henri Alleg nor izan zen. Garai hartan, ordea, 1958an, arjeliar askapen nazionala seriotan abiatzen zenean, frantses armadaren tortura salatu zuen Henri Alleg-ek (bera ere torturatik bizirik irten ondoren). Ezkertar extra-parlamentariaren laguntzaz, eskandalo izugarria sortu zen Fraintzian. Eta frantses hiper-demokrata haiek Arjelian sistematikoki arjeliar abertza-

leen kontra tortura erabiltzen zutela frogatu zen.

Parisko gobernuak «terroristen jokoa» egiten omen zuten «frantses ustelduen gezurra» salatu zuen.

Baina Arjelian erabiltzen zen torturaren egia lazgarria azaldu zen munduaren aurrean; handik bi urtetara berriro ere Djamil Bou-pacha-ren kasuan nabarmen agertu zenez.

Kakoa, ordea, ez zen han «terrorismoa bai»/«terrorismoa ez»; ezta «tortura bai»/«tortura ez» ere; arjeliarrek *autodeterminatzeko* eta beren burua *askatzeko* zeukaten eskubidea, eta eskubidea lortzekotan zaramaten borroka anti-inperialista baizik. Kakoa, bestela esanda, *Arjeliaren independentzia* zen; eta ez «tortura bai/tortura ez» bakarrik.

ARREGI eta Zabaltzaren gertakarien atzean, era berrian, «Ley Anti-Terrorista» bai ala ez baizik aipatzen ez dutenek, ez dute kakoa somatzen. Kakoa euskaldun abertzaleek *autodeterminatzeko* eta *askatzeko* daramaten borrokan (eta funtsatzen duen eskubidean) baitago.

Torturaren kontra gaude, noski. «Ley Anti-Terrorista»ren kontra gaude, jakina. Baina gu ez gara bi horien salaketa soilean geldituko. Euskal Herriak *auto-determinatzeko* eta *askatzeko* eskubidea du. Funtsezko arazo honi soluziorik eman nahi ez diotenek, tortura sustatzen dute. Torturarik gabe, gerla zikinik gabe, eta demokratik at dauden jokabideak erabili gabe, garbi baitago Euskal Herriak helburua aisa lortuko lukeela. Bai Arjelian eta bai hemen, torturaz bestalderaino heldu behar da; eta zapalduetako herrien *independentzia* onartu.

Gainerakoa epifenomenoetan eta axalean gelditu nahia besterik ez da.